

## Liburuen trukaketa izango da apirilaren 22an Mutriku

### Euskaraz idatzitako liburuak asteartetik aurrera laga daitezke udal liburutegian

MUTRIKU. Apirilaren 2an Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta, Mutrikuko udaleko Kultura sailak Bookcrossing edo liburuen trukaketa antolatu du apirilaren 22rako.

Udaletik azaldutakoari eutsiz, 'Bookcrossing liburuak elkarrekin trukatzeko proiektua da eta gaur egun mundu osoko milaka irakurle biltzen ditu. Aspaldi Interneten sortutako ideia hori gaur egun sistematizatuta dago [www.bookcrossing.com](http://www.bookcrossing.com) web gunean'.

Hori dela eta, 'liburuak leku jakin batean edo kalean bertan aske uzten dira, norbaitek topatuko dituelakoan'. Pertsona batek liburu bat aurkitzean, liburuaren kodea erregistratu egiten du Bookcrossing web gunean eta era horretan 'liburuaren ibilbidea jarrai daiteke'. Bestalde, 'behin liburu bat irakurrita, berriro libre uzten da irakurle gehiago izateko eta... mundua ezagutzeko'.

Herriko haur eta gaztetxoei zuzenduta dagoen ekimen horretan parte hartu nahi duten mutrikuarrek datorren asteartetik apirilaren 19ra bitartean laga ditzakete euskaraz idatzitako liburuak Zabil kultur etxean kokatuta dagoen udal liburutegian.

Behin liburuak jaso ondoren, haurrek askatuko dituzte 'nahi duten herriko kale edo lekuetan'.

'Bookcrossing' tailerra Liburuaren trukaketarekin batera, Mutrikuko udaleko Kultura sailak 9 eta 14 urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendutako Bookcrossing tailerra antolatu du apirilaren 22rako.

Tailerra 17.00etan egingo da liburutegian eta bertan parte hartzera animatzen direnek 'Bookcrossing egitea zer den' ikasiko dute. Horren ondoren, 'bildutako liburu guztiak prestatuko dituzte herrian zehar askatzeko, liburu bakoitzari kode bat sortuz eta pegatinak itsatsiz'.

Tailerrean parte hartzeko izena apirilaren 19ra arte eman daiteke liburutegian. Hori bai, 'plazak mugatuak dira'.